

EKONOMIA ETA ADMINISTRAZIO ERREGIMENEN ARAUDIA GAKUP

EZEZTATZEAK, EMAN GABEKO ZERBITZUAK ETA ITZULTZEAK **FIDANZA** **KALTEAK**

1. EZEZTATZEAK, EMAN GABEKO ZERBITZUAK ETA ITZULTZEAK

Bezeroak erreserba egin ondoren, baldintza administratiboak bete ondoren eta egonaldiari dagokion zenbatekoa ordaindu ondoren, erreserba ezeztu nahi duela adierazten badu, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

1.- Zerbitzuari berari dagokion arrazoiren bat dela eta, zerbitzua ezin bada instalazioan bertan eskaini, hona hemen irtenbideak:

a. Elkarte erabiltzaileak ez baditu baldintza administratibo eta ekonomiko guztiak bete, erreserba ezeztuko da.

b. Udalerrian bertan edo inguruan antzeko kategoriako eta balorazioko alojamendua eta zerbitzuak aurkituko ditu, elkarte erabiltzaileak duen garraiobidea kontuan hartuta.

c. Elkarte erabiltzaileak ez badu onartzen udalerriz edo lekuz aldatzea, eskubidea izango du ordaindutako zenbatekoa itzul diezaioten eskatzeko.

d. Udalerrian bertan edo inguruan antzeko kategoriako eta balorazioko alojamendua ezin bada eskaini, ordaindutako zenbatekoa itzuliko da.

2.- Alderdi erabiltzaileak instalazioak edo zerbitzuak erabiltzeari uko egiten badio behin horretarako ezarritako epea bukatuta, Patronatuak honako hau egingo du:

a. 30 egun lehenago egin bada ezeztatzea, %100 itzuliko da, kudeaketa gastuak izan ezik.

b. 15 egun lehenago egin bada ezeztatzea, %50 itzuliko da, hitzartutako kudeaketa gastuak kenduta.

c. 7 egun lehenago egin bada ezeztatzea, %25 itzuliko da, hitzartutako kudeaketa gastuak kenduta.

d. 7 egun baino gutxiagoko epearekin egin bada ezeztatzea, ez da dirurik itzuliko.

3.- Itzuli beharreko diru kopurua eskatzailearen kontu korrontean sartuko da.

4.- Behar bezala arrazoitutako kausaren bat dela eta, eskola taldeetako arduradunek Patronatuari jakinarazten badiote hainbat zerbitzuren erabilera aldatu nahi dituztela, edo ostatu hartuko duten pertsona kopurua beste bat dela jakinarazten badute, aldagetari dagokion zenbatekoa itzuliko die, baldin eta behar bezala justifikatzen badute eta kudeaketa lanak egin ahal izateko nahikoa denborarekin jakinarazten badute —48 ordu, aste barruan eta jarraian kontatuta—.

- Ezeztatzea idatziz egin delako ezin badute beste talde batzuek edo aterpekide batzuek erabili, ez da ezer itzuliko edo ordeztu ahal izandako plazei dagokien zenbatekoa soilik; *kudeaketa gastuak kontuan hartuko dira*.

- Ez bada bertaratzerik izan

- zerbitzua jasotzera, ez da ezer itzuliko.

Itzuli beharreko zenbatekoa kontu korrontean sartuko da, transferentzia bidez.

2. FIDANTZA

Aterpekide taldeek utzitako fidantzaren zenbatekoa itzuli egingo da, egonaldian arazorik egon ez delako txostena jaso ondoren. Transferentzia bidez kontu korrontean sartuko da itzuli beharrekoa, jasotako taloi berbera itzulita.

3. TARIFAK

Indarrean egongo diren tarifak, ekitaldi ekonomiko bakoitzeko, Donostiako Gaztediaren Aterpetxe eta Kanpinen Udal Patronatuko Zuzendaritza Batzordeak onartuko ditu; tarifa horiek argitara emango dira eta instalazioan bertan ikusteko moduan jarriko dira, eta dokumentazioan adieraziko dira.

4. KALTEAK [△](#)

Aterpekide talde bakoitzeko ordezkaria arduratuko da tresnak, altzariak eta instalazioa oro har behar bezala zaintzeaz. Instalazioan sartzerakoan kalteren bat ikusiz gero, horren berri emango dio instalazioaz arduratzen den pertsonari, hura jakinaren gainean egon dadin eta kaltea konpon dadin.

Taldeak instalazioan kalteren bat eraginez gero, horren berri emango dio instalazioaz arduratzen den pertsonari, hura jakinaren gainean egon dadin eta kaltea konpon dadin eta, halaber, Zuzendaritzari jakinaraziko dio.

Banakako aterpekideek ere eskubide eta betebeharrak berberak izango dituzte, instalazioko zaintzari eta kalteei dagokienez.